

Mintzola Fundazioaren eta Mikel Laboa Katedraren deialdia (2016) bertsolaritzari buruzko doktorego-tesiak egiteko

DEIALDIAREN XEDEA

Mintzola Fundazioaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzari esker sorturiko ikerketa-kontratu honen helburu nagusia bertsolaritzari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzea da. Euskal Herriko Unibertsitatearen parte-hartzea Mikel Laboa Katedraren eta Euskararen eta Ikerketaren Arloetako Errektoreordetzen bidez gauzatu da.

Bertsolaritza munduko eta Euskal Herri osoko ehundik gora bertsozale, eragile eta adituekin Ikerketa Ekintza Parte Hartzaile (IEPH) prozesu bat gauzatu zuen Bertsozale Elkarteak, 2011 eta 2012 urteetan zehar. Prozesu horretan, emaitza gisa, iker-lerro edo ikergai zerrenda bat lehenetsi zen.

UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak, bestalde, bere zereginen artean du artearen eta folkloreak adierazpenei buruzko zein euskal artisten obrari buruzko doktorego-tesiak sustatzea, eta bere egitasmoan zehazten du bertsolaritzari (musikari eta dantzari bezala) arreta berezia eskainiko zaiola.

Hori guztia kontuan izanik, deialdi honen xedea honako hau da: Mintzola Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateak sinaturiko lankidetzahitzarmenaren esparruan, deialdi publikoa argitaratzea **Bertsolaritzari buruzko doktorego-tesia** egitea helburu duten doktorego aurreko **kontratu bi** formalizatzeko UPV/EHUUn. 2016ko deialdian, doktoregaiak hautatuko du zein ikuspegitatik aztertuko duen bertsolaritza, baina epaimahaiak kontuan izango ditu [Bertsolaritzaren Ikerketa Plan Estrategikoan](#) lehenetsitako iker-lerroak.

PROZEDURA

- 2016an doktorego aurreko kontratu bi finantzatuko dira.
- Kontratatuak izan daitezkeen hautagaiek masterra edo horren baliokidea amaituta izan beharko dute kontratua sinatzeko unean [eta UPV/EHUko doktorego-programa batean matrikulatuta egon beharko dira \(2016ko azaro-abenduan\)](#).
- Aukeratutakoak doktorego aurreko urte beteko kontratu bat lortuko du, beste hiru urtez luzatzeko modukoa, Euskal Herriko Unibertsitateko sail edo institutu batean tesia egiteko, formazioan diren UPV/EHUko ikertzaileei dagokien arautegiaren arabera. Matrikulazio-gastuak aukeratutako doktoregaiak ordainduko ditu.
- Doktorego aurreko kontratu hori UPV/EHUren bidez formalizatuko da.
- [Tesiaren defentsa kontratua amaitu baino lehen egingo balitz, kontratatuak Doktore-titulua eskuratzen duen hilaren azken egunean etengo da kontratua. Kontratatuaren obligazioa izango da tesiaren defentsa-data aurretiaz \(gutxienez aste bete lehenago\) jakinaraztea Mikel Laboa Katedraren eta Mintzolarien zuzendaritzei.](#)
- Doktoregaiak urtero aurkeztuko die Mikel Laboa Katedraren eta Mintzola Fundazioko zuzendaritzei, irailaren 15a baino lehen, urtean egindakoaren txostena eta hurrengo urteko eginkizunen aurreikuspena. Txosten hori tesi-zuzendariak sinaturik entregatuko da. Txostenaren ebaluazioaren arabera berrikotuko da kontratua, betiere aurrekontu nahikoa izanez gero.
- Deialdi honetan zehazten diren ikergaietako bost adituz osaturiko hautaketa-batzordeak baloratuko ditu aurkezturiko curriculumak eta tesi-proiektuak. Baremoak zehaztu ondoren, puntu gehien duenetik gutxienera doan zerrenda egingo du. Puntuazio altuena lortu eta kontratatu izatea merezi duen hautagaiaren izena proposatuko dio Mikel Laboa Katedraren eta Mintzola Fundazioaren zuzendaritzei, bai eta horren ordezkoen izenak, uko egiteak edo beste edozein gertaera konpontzeko. Aditu batzordeak gurako guztiei edo batzuei elkarrizketa pertsonalak egitera dei egin ahal izango die. Batzordeak

laguntzak eskuratu nahi dituzten eskatzaileen soslaiei egoki iritziko ez balie, 2016an kontraturik egin gabe utz liteke, [edo bakarra egin](#).

ESKARIAK

Eskariak **Mintzola Fundazioaren Zuzendaritzari** bidaliko zaizkio, deialdi honekin batera doan eskari-orriarekin, Fundazioaren egoitzara (Mintzola Fundazioa. Subijana Etxea, Kale Nagusia, 70. 20150 Amasa-Villabona).

- Eskariak aurkezteko epea: **2016ko irailaren 12ra arte (irailaren 12aren ondoren postaratutakoak ez dira onartuko)**.
- Eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:
 - a) NANaren fotokopia.
 - b) Curriculum vitae eta curriculumean aipaturiko merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuen kopia. Egiaztatu gabeko merituak ez dira baloratuko.
 - c) Norberaren ikasketen espediente (Doktoregoko ikasketetara edo Ikerkuntzako Master Ofizialera sarbidea ematen duen tituluaren ikasketen espediente), non lortutako kalifikazio guztiak eta horien datak agertzen diren. Espedientean agertu behar du titulua eskuratzeko egin behar diren irakasgai edo kreditu guztiak egin direla.
 - d) Doktorego-tesiaren proiektuari dagokion txostena, tesiaren eta saileko/institutuko zuzendarien oniritziekin.
 - e) Tesiaren zuzendariaren curriculum vitae, erabili ohi diren formatuetakoren batean.
 - f) Merezimenduak barematzeko esanguratsutzat jo litekeen beste edozein dokumentu.
 - g) Aurkeztutako dokumentuen zerrenda (I Eranskina).

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Proposamenak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:

- Hautatutako ikergaiaren egokitasuna, tamaina eta koherentzia, deialdian proposatutako ikerketa-lerroen artean.
- Proiektuaren ebaluazioa: doktorego-tesia egiteko proiektuaren eta metodologiaren helburuak eta interesa.
- Doktoregaiaren espedientea: CVa eta espediente akademikoa.
- Euskarazko tesiak bakarrik onartuko dira.

DATAK ETA INFORMAZIOA

- Eskariak aurkezteko epea: 2016ko irailaren 12ra arte.
- Hautatuaren izena eta ordezkoen zerrenda argitaratzeko eguna: 2016ko irailaren 30a.
- Kontratua sinatu eta tesia egiten hastea: 2016ko azaro-abendua.
- Mintzola Fundazioaren atarian (<http://www.mintzola.eus>) eta Mikel Laboa Katedraren atarian (<http://www.ehu.eus/laboakatedra>) argitaratuko da deialdiari buruzko informazioa eta deialdiaren urratsen berri.
- Deialdiaren inguruko gorabeherei buruzko galderak honako helbide elektronikoko honetara zuzenduko dira: gidor.bilbao@ehu.eus